

# 7. INKESTA SOZIOLINGUISTIKOA

## Ipar Euskal Herriko emaitzak

2023ko martxo



## Aurkibidea

<b>I. Sarrera .....</b>	<b>3</b>
<b>II. 2021ko inkesta soziolinguistikoaren emaitzak .....</b>	<b>6</b>
1) Hizkuntza gaitasuna.....	6
2) Hizkuntzaren transmisioa .....	10
3) Euskararen erabilera .....	15
4) Euskararen erabilera sustatzeari buruzko jarrera .....	19
<b>III. Ondorio nagusiak.....</b>	<b>21</b>

## I. Sarrera

### 1) Oroigarri metodologikoak

→ *Inkesta soziolinguistikoa, zertarako?*

- Hizkuntzaren bizitasuna eta bilakaera erregulariki segitzeko eta hizkuntza politikaren norabideak argitzeko.
- Euskararen lurralde guzietarako adierazle amankomunak izatea, denboran eta lurraldeen artean neurketak eta konparaketak egin ahal izateko.

→ *Zer neurtzen du inkesta soziolinguistikoak?*

Inkesta soziolinguistikoak 4 esparru neurtzen ditu:

- Hizkuntza gaitasuna
- Hizkuntzaren transmisioa
- Erabilera
- Euskararen erabilera sustatzeari buruzko jarrera

Lau esparru horiek neurtzeko, Ipar Euskal Herriko 2.000 biztanleko lagin bati 40 galdera inguruko galdetegi bat egin zaio.

Inkesta soziolinguistikoa ez da zentsu bat. Biztanleria guzira ez da galdekatua. Ipar Euskal Herriko 16 urte eta gehiagoko 2.000 biztanleko lagin batean oinarritzen da.

→ *Zein da erabiltzen den metodologia?*

- Ipar Euskal Herrian bizi diren 16 urte eta gehiagoko 2.000 biztanleko lagin bati 20 minutu inguruko telefonozko galdetegi bat egin zaio. Lagina 2020 urteko biztanleriaren kopuruetan oinarritua da eta ondoko irizpideen arabera osatua da:
  - Generoa
  - Adin-tartea
  - Lurralde soziolinguistikoa (Baiona-Angelu-Miarritze, Lapurdi BAM kanpo, Nafarroa Beherea eta Zuberoa)
- Landa lana 2021eko azaroaren erditsutik 2021eko abenduaren erditsura egin da, COHDA enpresak bideraturik.
- Parte hartzaileei euskaraz ala frantsesez erantzuteko aukera eskaini zaie.

→ *Emaitzen irakurketarako kontuan hartu beharreko elementuak zoin dira?*

Inkesta soziolinguistikoa 1991tik bideratua baita, euskararen bilakaeraren joera handiak aztertzeke aukera ematen du. Inkesta batetik bestera eta euskal lurralde batetik bestera erabilitako metodologiaren jarraitutasunari zor dio bere sendotasuna. Hala ere, datuak geroz eta gehiago gurutzatu (adibidez, generoa, lurraldea, adin-tartea), eta emaitzen interpretazioa eta irakurketa arreta handiagoarekin egin behar da, batez ere kopuru absolutuei begira. Horregatik, euskaldun kopuru orokorrak aipatuko direlarik salbu, honako emaitzetan ehunekoen aurkezpena lehenetsiko da.

## 2) Iparraldeko biztanleria 2021ean

2021eko inkesta soziolinguistikoaren unibertsoa, hau da, Ipar Euskal Herriko 16 urte eta gehiagoko biztanleria, 255.940 pertsonakoa da. Azken inkesta baino %2,6 gehiago eta 2011ko inkesta baino %7,3 gehiago.

### Bilakaera demografikoak:

#### Jaiotzak, 2016 eta 2021

2016	2021
2.768	2.794

#### Heriotzak, 2016 eta 2021

2016	2021
3.301	3.662

*Iturria: Insee, erregistro zibileko estatistikak 2022/01/01*


2013tik 2019ra, jaiotza-tasa (jaiotza kopurua 1.000 biztanleko) milatik 9koa da eta heriotza tasa, 10,9. Aldi berean, biztanleriaren urteko aldaketa 0,9koa da. Saldo positibo hori sartze eta irteeren saldo positiboarekin lotzekoa da batez ere (saldo naturala -0,2koa baita).

Euskal Herri osoa kontuan hartuta, jaiotza-tasa handiagoa da Ipar Euskal Herrian Hego Euskal Herrian baino (%<sub>o</sub> 9 Lapurdin, %<sub>o</sub> 9,1 Nafarroa Beherean eta %<sub>o</sub> 8,1 Zuberoan; Araban, Bizkaian, Gipuzkoan eta Nafarroan %<sub>o</sub> 7,1, %<sub>o</sub> 8.1, %<sub>o</sub> 6,8 eta %<sub>o</sub> 7,7koak direlarik).

### Biztanleria orokorra

Ipar Euskal Herriko biztanleriak segitzen du zahartzen: 2019an biztanleriaren laurdenak baino gehiagok 65 urte baino gehiago zituen eta biztanleen % 34a erretretadunak ziren (*Iturria: INSEE, 2019*).

65 urte edo gehiagoko biztanleriaren proportzioa handiagoa da Ipar Euskal Herrian Hego Euskal Herrian baino: % 24,6 Lapurdin, % 25 Nafarroa Beherean eta % 29 Zuberoan; % 21,4, % 23,3, % 22,7 eta % 19koa delarik, hurrenez hurren, Araban, Bizkaian, Gipuzkoan eta Nafarroan (*Iturria : Gaindegia, 2022*).



*Iturria: INSEE-ko POP1B datu basea, 2017*

Familien osieran izan diren aldaketak ere interesgarriak izaten dira bilakaera soziolinguistikoak aztertzerakoan, batez ere hizkuntzaren transmisioari begira. Izan ere, haurrak dituzten bikoteen ehunekoa % 40,4tik %37ra jaitsi da 2008 eta 2019 urteen artean eta haurrik gabeko bikoteen ehunekoa % 44,8tik % 46.3ra igo da. Guraso bakarreko familien proportzioa ere % 14,8tik % 16,8ra igo da ber garaian.

### Bilakaera linguistikoak:

Izan lehen mailan, kolegioan edo lizeoan, 2016-2023 garaian murgiltze ereduaren edo elebiduneari eskolatuak diren ikaslearen kopurua emendatuz joan da. Maila guztiak kontuan hartuta, elebiduneari edo murgiltzearen eskolatuak diren ikaslearen proportzioa % 27koa da 2017/2018 ikasturtean (% 19 elebiduneari eta % 7 murgiltzearen) eta % 29koa 2022/2023 ikasturtean (% 21 elebiduneari eta % 8 murgiltzearen).

Elebiduneari edo murgiltzearen eskolatuak diren ikaslearen proportzioa, lehen mailan, kolegioan eta lizeoan 2017/2018 eta 2022/2023 ikasturteak

	<b>2017/2018</b>	<b>2022/2023</b>
Lehen maila	%40	%42
Kolegioa	%20	%23
Lizeoa	%6	%9

Datu hori inkesta soziolinguistikoaren emaitzekin perspektiban emateko da 2011n eskola hasi duten haurrak 2021eko inkestatik goiti bakarrik kontabilizatuak baitira (inkesta 16 urte eta gehiagokoak kontuan hartzen dituelako).

### 3) Nondik abiatzen gara?

Lehenik eta behin, zehazteko da demografia joerak bezala, bilakaera soziolinguistikoak epe luzean aztertu behar direla eta inkesta batetik besterako bilakaera handiak gutitan aztertzen direla.

Aitzineko inkestak ekarritakoak:

- Euskaldun kopuruaren eta ehunekoaren beherapena, gehien bat belaunaldi zaharretako hitzunen galtzearen ondorioz.
- Euskaldun kopuruaren beherakada gelditzeko bidean zela zirudien.
- Nafarroa Beherea eta Zuberoa eremu soziolinguistiko euskaldunena zen (% 49,5 euskaldun) baina Lapurdik zuen euskal hitzun kopuru handiena. BAM eremuan, euskaldunen ehunekoak baita kopurua ere egonkortze fase batean zen 2011ko inkestarekin konparatuz (% 8,4 euskaldun eta 8.600 hitzun).
- Belaunaldi zaharrenean (65 urte eta gehiagokoak) zen euskaldunen ehunekorik handiena (% 30) baina euskaldunen proportzioa eta kopuruaren emendatzea nabarmentzen zen 16-24 adin-tartean.
- Familia bidezko transmisioa konfirmatua zen: bi burasoak euskaldunak zirelarik, familien % 86,3k euskara transmititzen zieten beren haurrei. Bi gurasoetatik bat euskalduna zelarik, erdiak baino gehiagok euskara transmititzen zieten seme-alabei, frantsesarekin batera.
- Euskararen erabilera 1,5 puntuz jaitsi egin zen azken inkestaren emaitzekin konparatuz (2011). 2016an, biztanleen % 8,1k euskara erabiltzen zuen frantsesa bezainbeste edo gehiago eta % 10,2k frantsesa baino gutiago erabiltzen zuen. Beherakada gizarte eremu desberdinetan ageri zen eta bereziki nabarmena izan zen Nafarroa Beherea eta Zuberoa eremu soziolinguistikoan (-2,7 puntu 2011 eta 2016 artean).
- 65 urte baino gehiagoko adin-tartekoek zuten erabilpen tasarik handiena, nahiz eta gorakada ttipi bat agertu 16-24 eta 25-34 adin-tarteetan.
- Euskararen erabilera sustatzearen aldeko jarrera 3,2 puntuz jaitsi zen. Aldiz, ez alde ez aurka zirenen proportzioa gora joan zen.

## II. 2021ko inkesta soziolinguistikoaren emaitzak

2021eko inkestaren emaitzak epe luzeko ikuspegiari aztertzeko, datu gehienak 2001 eta 2011 urtekoekin (20 eta 10 urteko bilakaera) eta 2016 urtekoekin (azken inkesta soziolinguistikoa) alderatuta aurkeztuko dira.

### 1) Hizkuntza gaitasuna

Hiru hiztun mota bereizten dira euskaraz mintzatzeko edo ulertzeko duten gaitasunaren arabera:


**Euskalduna (elebiduna):** euskara ongi edo nahiko ongi ulertzeko eta mintzatzeko gai da.

**Euskaldun hartzailea (elebidun hartzailea):** ez da euskaraz ongi edo aski ongi mintzatzeko gai. Hala ere, badu euskararen nolabaiteko ezagutza. Zehazki, multzo honetan sartzen da honako baldintza hauetakoren bat gutienez betetzen duena:

- Euskaraz "zertxobait" ulertzeko eta hitz egiteko gai da.
- Euskara "ongi" edo "nahiko ongi" ulertzeko gai da.

**Erdalduna (erdaldun elebakarra):** ez da gai euskaraz ulertzeko, ezta mintzatzeko ere.

- Hizkuntza gaitasun orokorra




VII. Inkesta Soziolinguistikoaren arabera, 2021ean Iparraldean bizi diren 16 urte edo gehiagoko biztanleen % 20,1 euskalduna da, % 9,4 euskaldun hartzailea eta % 70,5 erdaldun elebakarra. Kopuru absolutuetan beraz, 51.500 euskaldunak dira, 24.000 euskaldun hartzaileak eta 180.500 erdaldunak.

2016an behatutako egonkortzea berretsi egiten dela badirudi eta euskaldunen proportzioa mantentze batetara iritsi da. Euskaldunen proportzioa 0,4 puntuz apalagoa da 2016 urtearekin konparatuz baina ber denboran hiztunen kopurua doi bat handitu da. Gauza bera gertatzen da elebidun hartzaileekin, haien proportzioa egonkortu baita eta hiztunen kopurua emeki handitzen baita 2016 urtearekin alderatuta, igoera 2.300 hiztunekoa da 10 urtetan.


Euskaldun eta elebidun hartzaileak elkartzen badira, 75.500 hiztunek Iparraldeko 16 urte baino gehiagoko biztanleriaren % 29,5a osatzen dute (-%0,3 2016 urteari konparatuz). 5 urtez, 1.500 hiztun irabazi dira eta 2.700 10 urtez.

- Euskaldunen proportzioaren bilakaera 1996tik 2021ra. Iparraldea (%)



Hiztunen galtzearen «balaztatze» dinamika denboran zehar ikus daiteke: 2011 eta 2006 urteen artean hiztunen kopurua 2,2 puntuz jaitsi bazen, murrizketa hori 0,4koa baizik ez da 2016 eta 2021 urteen artean.

- Hizkuntza gaitasuna lurralde soziolinguistikoaren arabera, 2021 urtea (%)



### Euskaldun kopurua lurraldeka


BAM	Lapurdi BAM gabe	Nafarroa Beherea eta Zuberoa
8.800	27.000	15.500

Nafarroa Beherea eta Zuberoa dira euskaldunen ehunekorik handiena duten lurraldeak (% 47,5) Lapurdin (BAM gabe), % 23 dira. Azkenik, BAM eskualdea da euskaldunen ehunekorik ttipiena duena: % 8,4.

Euskaldunen kopuruari dagokionez, Lapurdin aurkitzen da kopuru nagusia (27.000), ondotik Nafarroa Beherea eta Zuberoa (15.500) eta azkenik BAM eskualdea (8.800).

Azken inkestarekiko bilakaerari dagokionez, BAM eta Lapurdin euskaldunen ehunekoa egonkortzen da eta hitzun kopurua doi bat emendatzen. Nafarroa Beherea eta Zuberoan aldiz, euskaldunen ehunekoa 2 puntuz apaltzen da eta 4,5 puntuz 2011ko inkestarekin konparatuz.

- Euskaldunen ehunekoaren bilakaera adin-tarteka - 2001, 2011, 2016 eta 2021 urteak (%)



65 urte baino gehiagokoak dira oraindik ere euskaldunen proportzio handiena dutenak (% 25,7). Hala ere, 16-24 adin-tartekoetan indarberritzea konfirmatzen da eta badirudi azkartu egin dela azken inkestatik. Euskaldunen proportzioaren aldea 10 puntukoa bazen bi belaunaldi horien artean 2016 urtean, 2021ean, 4 puntukoa baino ez da.

Euskaldunen kopurua emendatuz joan da ere 25-34 adin-tartean eta neurri ttipiangoan, 35-49 adin-tartean. Talde horretan, euskaldunen proportzioa lehen aldiko ez da jautsi 2001etik, nahiz eta euskaldun proportziorik apalena duen belaunaldia izan. 16-24 eta 25-34 adin-tarteetako «irabaziek» adin-tarte zaharragoetan diren «galtzeak» orekatzen dituzte (hau da, 65 urte baino gehiagokoak eta 50-64 adin-tartekoak).




- Euskaldunen erraztasuna euskaraz aritzeko (2021, 2016, 2011 eta 2001 urteak)

Euskaldunak hiru multzotan bereiz daitezke, euskaraz edo erdaraz mintzatzeko duten erraztasun handiagoaren edo ttipiagoaren arabera.

**Euskal elebidunak** euskaraz erdaraz baino hobeki moldatzen direnak dira.

**Elebidun orekatuak**, aldiz, berdin moldatzen dira euskaraz zein erdaraz.


**Erdal elebidunak** hobeki moldatzen dira erdaraz euskaraz baino.



2021eko inkestaren arabera, euskal elebidunak euskaldunen % 20,5 dira, % 0,4 gutiago 2016 urtearekin alderatuta. Euskaldunen % 33,3 elebidun orekatuak dira, hau da, -% 4,3 2016ko inkestarekin konparatuta eta erdal elebidunak % 46,2, +% 4,7 2016ko inkestarekin alderatuta.

Azken 20 urteetako bilakaerari dagokionez, (2001 eta 2021 urteen arteko konparaketa), aldaketa handiena erdal elebidunen proportzioan ageri da. Erdaraz euskaraz baino errazago ari diren euskaldunen proportzioa handituz joan da 20 urtez (+% 5,3 2001 eta 2021 urteen artean). Elebidun orekatuen proportzioa 4,2 puntuz apaldu da eta euskal elebidunena, berriz, 1,1 puntuz.

- Euskaldunen erraztasuna euskaraz aritzeko lurraldearen arabera, 2021 (%)



Euskaldunek euskaraz mintzatzeko duten erraztasuna oso aldakorra da lurraldearen arabera. BAM eskualdean, euskaldunen % 55,7 erdaraz euskaraz baino errazago mintzatzen da.


Lapurdin (BAM gabe), erdaraz euskaraz baino errazago ari diren euskaldunen proportzioa da handiena baina haien kopurua ttipiagoa da BAM lurraldeari konparatuz. % 51 dira aldiz elebidun orekatuak % 30,7 eta euskal elebidunak % 18,3.

Nafarroa Beherean eta Zuberoan da orekatuena euskaldunen banaketa euskaraz hitz egiteko erraztasunaren arabera. Elebidun orekatuak dira gehienak (% 38), ondotik erdal elebidunak (% 32,3) eta euskal elebidunak (% 29,7).

## 2) Hizkuntzaren transmisioa


- Lehen hizkuntza, 2021 (%)

Lehen hizkuntzari buruz ari garenean, haurrak 3 urte bete arte gurasoengandik edo harekin bizi diren senitartekoengandik ukandako hizkuntzari edo hizkuntzei buruz dihardugu.



Iparraldeko 16 urte edo gehiagoko % 13ren lehen hizkuntza bakarra da euskara (3 puntuko apaltzea azken inkestari konparatuz eta 6,5 puntuko apaltzea 2011 urteari konparatuz). Iparraldeko 16 urte edo gehiagoko % 6ak euskara eta erdara jaso ditu (proportzio berdintsua 2016 urtearekin konparatuz eta puntu erdi bateko emendatzea 2011 urtearekin konparatuz).

- Lehen hizkuntzaren bilakaera 2001etik 2021ra (%)



Azken 10 urteetan, euskara lehen hizkuntza bakarra dutenen ehunekoa 12 puntuz apaldu da (% 25 ziren 2001ean eta % 13 2021ean). Euskara eta frantsesa lehen hizkuntza gisa jaso dutenen ehunekoa aldiz % 6 ingurukoa gelditzen da urteetan zehar.

- Lehen hizkuntza lurraldearen arabera (%)

	Iparraldea	BAM	Lapurdi BAM gabe	Nafarroa Beherea eta Zuberoa
Euskara	13,3	5,1	13,6	38,3
Euskara eta erdara	6	3,3	7,1	10,7
Erdara	80,7	9,7	79,3	51,0

Jasotako lehen hizkuntza desberdina da lurraldearen arabera. Nafarroa Beherean eta Zuberoan, euskara lehen hizkuntza da kasik biztanleriaren erdiarentzat (% 49): % 38k euskara du lehen hizkuntza bakar gisa eta % 10,7 erdararekin batera. Euskara lehen hizkuntza gisa duten biztanleen ehunekoa anitz apaldu da azken inkesta soziolinguistikoaren datuekin alderatuta (-8,5 puntu 2016 eta 2021 artean).

Lapurdi (BAM kanpo), biztanleriaren % 20ak euskara du lehen hizkuntza gisa: % 13,6 euskara bakarrik (-2,3 puntu 2016 urtearekin alderatuta) eta % 7,1 euskara eta erdara.

BAM eremuak du euskara lehen hizkuntza duten proportziorik apalena: % 5,1 euskara bakarrik (-1 puntu 2016 urtearekin alderatuta) eta % 3,3 euskara eta frantsesa.

- Lehen hizkuntza adinaren arabera 2001, 2016 eta 2021 (%)



Euskara lehen hizkuntza bakarra dutenen proportziorik handiena 65 urte edo gehiagokoen adin-tartean aurkitzen da. Hiztunak zenbat eta gazteagoak izan, orduan eta joera hau apaltzen da. 16-24 urtekoen adin-tartean, lehen hizkuntza euskara soilik duten pertsonen proportzioa % 3,7koa da, 20 urte lehenago % 14,3koa zelarik.

Aldiz, bi hizkuntza jabetze-eskemak kontuan hartzen direnean (euskara soilik lehen hizkuntza eta euskara eta erdara elkarrekin), euskara lehen hizkuntza gisa handitu egiten da bi adin-tarte gazteenetan, aitzineko inkestarekin alderatuta: 25-34 urtekoen % 14,5 (2016an, % 13,6koa zelarik) eta 16-24 urtekoen % 14,8 (2016an, % 10,9koa zelarik).


Lehen aldiz, euskara lehen hizkuntza (euskara bakarrik edo erdararekin) duten pertsonen proportziorik ttipiena ez da kategoria gazteenetan baizik eta 35-49 urte bitartekoetan.

- Euskaldunen bilakaera lehen hizkuntzaren arabera, 2001 eta 2021 urteak (%)

**Euskaldun zaharrak:** euskara soilik eskuratu dute gurasoengandik edo etxean bizi diren ahaideengandik, hiru urte bete arte.

**Jatorrizko elebidunak:** euskara eta erdara eskuratu dituzte gurasoengandik edo etxean bizi diren ahaideengandik, hiru urte bete arte.

**Euskaldun berriak:** ez dute euskararik eskuratu etxean gurasoengandik edo etxean bizi diren ahaideengandik. Etxetik kanpo ikasi dute euskara, eskolan edo euskaltegian.




Duela 20 urte, euskaldun zaharrek euskaldun guzien % 82a osatzen zuten. Gaur egun, berriz, % 60,4a. Jatorrizko elebidunen proportzioa % 11koa zen eta gaur egun % 22,2koa. Eta azkenik, euskaldun berriak % 7 ziren 2001ean eta % 17,4 2021ean.

Lurraldeen arteko desberdintasunak ere nabarmenak dira; izan ere, BAMEko biztanleen erdiak baino doi bat gutiago dira euskaldun zaharrak, laurden bat jatorrizko elebidunak eta % 20,8 euskaldun berriak.

Lapurdin (BAM kanpo), banaketa berdintsua da eta euskaldun zaharren, jatorrizko elebidunen eta euskaldun berrien proportzioak, hurrenez hurren, % 54, % 24,6 eta % 21,4 dira.

Bukatzeko, Nafarroa Beherean eta Zuberoan, euskaldunen hiru laurdenak (% 75,1) euskaldun zaharrak dira oraindik 2021ean, jatorrizko elebidunak % 16,5 eta euskaldun berriak % 8,5.


- Euskaldunak lehen hizkuntza eta adinaren arabera, 2011 eta 2021 urteak (%)



Adinaren araberako banaketari dagokionez, euskaldunen tipologia anitz aldatu da 10 urtez. 50 urte baino gehiagokoen artean euskaldunak dira nagusi, bereziki 65 urte eta gehiagokoetan (% 80,3), baina zenbat eta gazteagoak izan euskaldunak, orduan eta ttipiagoa da euskaldun zaharren proportzioa, jatorrizko elebidunen eta euskaldun berrien alde.

- Transmisioa **bi burasoak euskaldunak** direlarik, 2021 (%)


Familia bidezko hizkuntzaren transmisioa nolakoa den jakiteko inkestatu guzietan galdetu zaie zein hizkuntza jaso duten etxean, haien gurasoen hizkuntza-gaitasunaren arabera.




Bi gurasoak euskaldunak direlarik, hizkuntza transmisioaren progresioa nabarmena da 2016ko inkestarekin alderatuta; izan ere, gurasoen % 79k euskara transmititu diote seme-alabei (erdararekin edo euskara soilik), 3,6 puntuko emendatzea beraz 2016 urtearekin konparatuz eta euskararen transmisioa hizkuntza bakar gisa 2,1 puntuz emendatzen da 2016 urtearekin alderatuta.

Azpiko grafikoak ere, 16 urtetik beherakoen transmisioari buruzkoak, joera hori berresten du.

- Euskararen transmisioa 3-15 eta 16-34 adin-tarteetan, bi burasoak euskaldunak direlarik (%)




- Transmisioa **gurasoetatik bat euskalduna** delarik, 2021 (%)



Gurasoetatik bat euskalduna delarik ere, euskararen transmisioaren azkartzea konfirmatzen da (euskara eta frantsesa % 26ari transmititua izan zaie). Euskaldunak gero eta gazteagoak izan, orduan eta transmisioa gorago da.


### 3) Euskararen erabilera

Ipar Euskal Herrian 2021ean, 18.200 pertsonak euskararen erabilera trinkoa egiten du (hau da, euskara erdara bezainbeste edo gehiago erabiltzen du egunerokoan), erran nahi baitu kopurua gutitu dela azken inkesta soziolinguistikoari konparatuz (2016ko inkestaren arabera, 20.200 pertsonak erabilera trinkoa egiten zuten). Proportzioan, 16 urte edo gehiagokoan % 7,1ek modu intentsiboan erabiltzen dute euskara, hau da, puntu bat gutiago 2016 urtearekin konparatuz. Eraitza horiek bat egiten dute Soziolinguistika Klusterrak 2021 urte bukaeran egindako kale neurketaren datuekin<sup>1</sup>. Zehazkiago:




<sup>1</sup> Soziolinguistika Klusterra, Hizkuntza erabileraren kale neurketa, emaitzen laburpen txostena, 2021.

- Euskararen erabilera lurraldearen arabera, 2021 (%)



Lurraldeen arteko desberdintasunak ageri dira euskararen erabilerearen bilakaerari dagokionez 2016 eta 2021 artean. BAM lurraldean, euskararen erabilera trinkoak doi bat gora egin du 2016 eta 2021 artean, % 0,8tik % 1,6ra pasatuz. Aldiz, Lapurdin (BAM kanpo), erabilera intentsiboa pixka bat jautsi da (-1,6 puntu 2016 eta 2021 urteen artean), baita Nafarroa Beherean eta Zuberoan (-1,5 puntu 2016 eta 2021 urteen artean).


- Euskararen erabilerearen bilakaera 2001tik 2021ra



20 urtez, euskara erdara baino gehiago edo bezainbeste erabiltzen dutenen proportzioa 3 puntuz apaldu da. Apaltzea bereziki azken 10 urteetan gertatu da (2011 eta 2021 artean -% 2,5, hau da, euskara erdara bezainbeste edo gehiago erabiltzen duten 4.600 erabiltzaile gutiago). Aldiz, euskara erdara baino gutiago erabiltzen dutenen ehunekoa eta kopurua emendatu da 2016 eta 2021 artean: +0,8 eta 2.600 erabiltzaile gehiago. 2011 eta 2021 artean, progresioa 1,7 puntukoa da.




- Euskararen erabileraren bilakaera adinaren arabera Iparraldean. 2011-2021 (%)



Euskararen erabiltzaile proportziorik handiena duen adin-tartea 65 urte baino gehiagokoa da (izan erabilera intentsiboa edo noizbehinkakoa). Hala ere, erabileraren bilakaerak adin-taldearen arabera bereizten dira: 2011 eta 2021 bitartean, euskararen erabilera intentsiboa jausten da kasik adin-tarte guzietan (nahiko egonkorra baldin bada ere 35-49 eta 25-34 adin-tarteetan) salbu 16-24 urtekoen kasuan, horien artean doi bat emendatuz joan baita.

Bestalde, noizbehinkako erabiltzaileen proportzioa (euskara erabiltzen dutenak baina erdara baino gutxiago) handitzen ari da kasik adin-tarte guzietan.


- Etxean euskara erdara bezainbeste edo gehiago erabiltzen dutenen bilakaera. Iparraldea, 2001-2021 (%)



Testuinguru informal batean (etxean), euskararen erabilera gutitzen ari da azken inkestarekin alderatuta, solaskide mota guzietan. Oro har, 20 urtez, etxean euskaldunen erabilera intentsiboa 5 puntuz jautsi da. Azken inkestarekin alderatuta, euskaldunek euskara gehiago erabiltzen dute solaskide mota batekin bakarrik (proportzioa 2001 urteko inkestari konparatuz doi bat emendatu da ere): haurrak.

Emaitza horiek kale neurketaren azterlanaren ondorioekin bat egiten dute: «Indarrean dago haurren eta helduen arteko solasaldietan euskaraz egitera bultzatzen duen arau soziala»<sup>2</sup>.

- Eremu formal eta hurbilean euskara erdara bezainbeste edo gehiago erabiltzen dutenen bilakaera. Iparraldea, 2001, 2011, 2016 eta 2021 urteak (%)




Komunikazio formalaren esparruan ere, euskararen erabilera gutitu da elkarrizketa testuinguru guzietan. Euskararen erabilera handiena da lagunartean (% 12,1), ondotik lankideen testuingurua dator (% 7,9, 2,4 puntuko jaitsiera 2016ko inkestarekin alderatuta). Alderantziz, bankuak euskara guttienik erabiltzen diren lekuak dira (% 2,4).

Osasun zerbitzuak dira euskararen erabileraren emendatze bat ageri den toki bakarra eta joera hori azken hiru inkestetan baieztatzen dela dirudi (+1,4 puntu 2011tik). Saltokien kasuan, erabilera-maila egonkortzen da 2016ko inkestarekin konparatuta.

<sup>2</sup> Soziolinguistika Klusterra, Hizkuntza erabileraren kale neurketa, emaitzen laburpen txostena, 2021, 40. orrialdea

#### 4) Euskararen erabilera sustatzeari buruzko jarrera

- Euskararen erabilera sustatzeari buruzko jarreraren bilakaera. Iparraldea, 2016-2021 (%)




Euskararen erabilera sustatzeari buruzko jarreraren neurria, 16 urte edo gehiagoko biztanleek hainbat esparrutan, hau da, irakaskuntzan, administrazioan eta hedabideetan euskara sustatzearen alde edo kontra erakutsi duten iritziaren arabera egiten da.

Iparraldeko 16 urte edo gehiagoko biztanleen % 36,3 euskararen erabilera sustatzearen alde da (+1 puntu 2016ko inkestarekin konparatuz eta -2,2 2011ko inkestari konparatuz), % 49,2 ez alde ez aurka (+1,7 puntu 2016ko inkestarekin konparatuz eta +% 9 2011ko inkestari konparatuz) eta % 14,5 aurka da (-2,6 puntu 2016ko inkestarekin konparatuz eta -6,8 puntu 2011ko inkestari konparatuz).

Euskararekiko jarrerak lotura handia du hizkuntza-gaitasunarekin. Izan ere, euskaldunen % 70 dago euskararen erabilera sustatzearen alde, euskaldun hartzaileen % 48,4 eta erdaldunen % 25.

Era berean, euskararen erabilera sustatzearen aldeko jarrera askoz handiagoa da Nafarroa Beherean eta Zuberoan (% 48,7), Lapurdin (% 39,2) eta BAMen baino (% 29,2). Azken inkestarekin alderatuta, euskararen erabilera sustatzearen aldeko jarrera dutenen proportzioa handitu da azken bi lurralde horietan (hurrenez hurren, +1,6 puntu eta 2,8 puntu) eta jautsi da Nafarroa Beherean eta Zuberoan (-6,3 puntu).


- Euskararekiko interesa, 2011-2016-2021 (%)



Iparraldeko biztanleen gehiengoak interesa erakusten du euskararekiko. Izan ere, biztanleen % 81,9k euskararekiko interesa adierazten du: % 29,6k oso handia, % 30,6k nahiko handia eta % 21,4k zertxobait. Gainera, Iparraldeko lurralde guzietako biztanleek adierazten dute euskarekiko interesa dutela.

Lehen aldiz, euskararen sustapenaren aldeko ekimenen ezagutzari buruz galdekatuak izan dira pertsonak. % 50ek diote gutienez euskararen aldeko ekimen bat ezagutzen dutela. Ezagutza hori hizkuntza-gaitasunarekin lotua da; izan ere, euskaldunen % 70ek euskararen sustapenaren aldeko gertakari bat ezagutzen dute eta erdaldunen % 41ek.

- Seme-alabarik izanez gero, zein hizkuntzatan nahiko zenuke haiek ikastea? Iparraldea, 2016-2021 (%)



Irakaskuntzari begira, % 54k irakaskuntza elebidun bat nahiko luke haurrentzat (euskaraz, frantsesa ikasgai edo euskaraz eta frantsesez). Guttiago dira soilik frantsesezko irakaskuntza eredu bat nahiko luketenak, % 40,4.

### III. Ondorio nagusiak

#### **Hizkuntza gaitasuna:**

- 2016ko inkestaren ondorioak konfirmatzen dira, euskaldunen ehunekoa ez da gehiago apaltzen: doi bat apaldu baldin bada ere 2016 eta 2021 artean, beherakada hori azkarki moteldu da. 2001 eta 2011 artean euskaldunen ehunekoa 3.3 puntuz jautsi bazen, ondoko hamarkadan, 2011-2021ean, 1,3 puntuz baizik ez da jautsi (beherakada bitan zatitu da beraz aitzineko hamarkadari konparatuz).
- Hiztunen galera gelditu dela dirudi eta are gehiago, euskaldun eta elebidun hartzaileen kopurua berrabiatzen hasi dela. Elebidun hartzaileen emendatzea bereziki belaunaldi gazteetan ageri da (16-24 urtekoak, 25-39 urtekoak eta neurri ttipiangoan, 35-49 urtekoak), eta horiek parte batez euskalduntzen ari diren helduak direla pentsa daiteke.
- Emendatzeak segitzen du adin-tarte gazteetan eta azkartzen ari da: lehen aldiz, euskara lehen hizkuntza duten pertsonen proportzioa handiagoa da 16-24 eta 25-34 adin-tarteetan 35-49 adin-tartean baino. Hori, belaunaldi gazteek euskara eskuratzeko duten eskema berri batekin lotu daiteke: gazteek gutiago bereganatzen dute euskara lehen hizkuntza bakar gisa, baizik eta erdararekin batera. Badirudi indarberritze hori bizkortu egin dela 2016 eta 2021 artean.
- Lehen aldiko, bost adin-tarteetatik hirutan handitu da euskaldunen proportzioa: 16-24 urtekoena, 25-34 urtekoena eta lehen aldiz 2001etik, 35-49 urtekoena.
- Euskaldunen galera lurraldearen irizpidearen arabera irakurri behar da adin-tartearen irizpidearen arabera baino: euskaldun gehienik duen lurraldea bera da gehien galtzen dituen eta bertan da proportzioa gehienik apaltzen ere. Lehen aldiz, Baxenabarre eta Xiberoko biztanleen erdia baino gutiago euskaldunak dira. Apaltzea hiztun kopuruetan ere ageri da. Lapurdin (BAM kanpo) eta BAM lurraldeetan, euskaldunen proportzioa mantentzen da eta kopurua doi bat emendatu da.
- 20 urtez (2011-2021), erdaraz errazago hitz egiten duten euskaldunen proportzioa 5,3 puntuz emendatu da. 2021ean, heren bat baino gehiago elebidun orekatuak dira eta % 20 euskal elebidunak.

#### **Hizkuntzaren transmisioa:**

- Euskara ama-hizkuntza bakar gisa duten pertsonen ehunekoak behera egiten segitzen du, baina badirudi hizkuntzaren jabetze-eskemaren bilakaera baten adierazlea dela: pertsona gehiagok dute euskara lehen hizkuntza gisa baina erdararekin batera eskuratua.
- Familia bidezko transmisioaren sendotzea, 2016ko inkestan aztertutakoa, baieztatzen da, bereziki 16-34 urtekoen adin-tartean: zenbat eta gazteago geroz eta jende gehiagok euskara eskuratzen du etxean, bereziki bi burasoak euskaldunak direnean.

#### **Euskararen erabilera:**

- Euskararen erabilera apaltzen ari da, izan ehunekoetan edo kopuru absolutuetan (-%0,2 2016 urtetik geroztik, hau da, 2.000 erabiltzaile «trinko» gutiago).
- Hizkuntza gaitasunaren kasuan behatutako adin-tarteen arabeko bilakaera erabilerari ere aplikatzen zaio: oro har, erabilera jautsi baldin bada, belaunaldi gazteetan emendatzen ari da, bereziki 16-24 bitartekoetan.
- Euskararen erabilera lurralde euskaldunenetan murrizten ari da: 2021ean Soziolinguistika Klusterrak egindako kale neurketaren ondorioen jarraipenean, nahiz eta Baxenabarre eta Xiberoko euskararen erabilpen tasarik handiena duten lurraldeak izan, erabilera lurralde horietan da gehienik gutitu ere.
- Haurren presentziak euskararen erabilera bultzatzen du elkarrizketetan: 2021eko kale neurketan agertutako ondorio bat konfirmatzen da hemen ere. Elkarrizketa testuinguru guzietan ez dute euskararen erabilera modu berean bultzatzen. Testuinguru informalean, euskararen erabilera tasa handiagoa da haurrekin edo anai-arrebekin.

- Testuinguru informalean, lantokian euskara erabiltzen dutenen proportzioa jausten da 2016 urteari konparatuz (beharbada, azken hiru urteetako lan praktika aldaketekin lotu behar da, batez ere telelanaren garapen azkarrarekin) eta alderantziz, azken hiru inkestetan euskara gero eta gehiago erabiltzen da osasun-zerbitzuetan.

**Euskararen erabileraren sustatzeari buruzko jarrera:**

- Euskararekiko interesa eta aldeko sustapena berresten eta handitzen da. Aurkako iritzien proportzioa gutitzen ari da 2016 eta 2011 urteekin konparatuz.